

BALIO PROPOSAMENA

Gaur egun, gizartean baliabide gutxiko jende daude. Beraien beharrak asetzeko gai ez direnak eta hortaz bizitza duin bat eramaten ez dutenak. Arazo hau konpondu edo pertsonen kopuru hori murrizteko ondorengo ideia proposatzen dugu:

Eraikin batean zenbait bizikleta estatiko berezi jarriko ditugu. Mekanismo bat izango dute, zeinekin bizikletetan sortutako mugimendua energian transformatuko dute. Energia hori enpresa batzuei salduko diegu, dirua lortzeko.

Lortutako diruarekin langile bakoitzaren beharrak eta baliabideen arabera diru kantitate bat emango diegu. Etxebizitza, janaria eta hezkuntzarako erabiliko dituztenak. Azken batean langileak baliabide gutxiko jendea izango direnez, beharrak asetzean zentratzen gara.